



Edukia

2

Gizarte-zerbitzuetako egungo gastuaren egoera

Gastu publikoaren helburua

5

Gizarte-zerbitzuen muina

6

Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoaren eboluzioa

8

Gizarte-zerbitzuen arloko gastu pribatuaren garrantzia

9

Oinarrizko bost ideia


Gipuzkoako gizarte zerbitzuetako gastua

Erakunde publikoek ia 500 milioi euro bideratu zituzten 2013. urtean Gipuzkoako gizarte-zerbitzuak finantzatzera, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren *Gizarte Zerbitzuetako Gastu Publikoaren* azterlanak jasotakoaren arabera. Azkeneko hamarkadan hazi egin da modu nabarmen batean kopuru hori, nahiz eta egonkor mantendu den 2002 eta 2013 urteen artean zerbitzuetako helburu diren talde desberdinen arteko banaketa. Azterlan horretan kontuan hartutako zerbitzu eta prestazioetan, beste zerbitzu eta prestazioen aldean nabarmentzen dira egoitzetako arreta eta prestazio ekonomikoak.

Gizarte-zerbitzuetako egungo gastuaren egoera

Gipuzkoako gizarte-zerbitzuetako ohiko gastu publikoa heldu da 498,2 milioi euro izatera 2013. urtean, hau da, baliokidea den 704 euroko per capita gastua. EAE osorik hartuta konparatuz gero, zabalak dira lurraldeen arteko per capita gastu publikoaren arteko aldeak. Araban biztanleko gastu publikoa 892 eurokoa da, 729 Bizkaian eta 704 Gipuzkoan. Gipuzkoako gastu publikoa apalagoa da, gehienbat, Lurraldean egiten den prestazio ekonomikoetako gastu baxuagoarengatik, bereziki Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzan.

1. grafikoa. Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoaren banaketa ehunekotan, finantzatzen duen erakundearen arabera. Gipuzkoa 2013



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte Zerbitzuetako Gastu Publikoa 2013.

Finantza-iturriaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten du gizarte-zerbitzuetako gastuaren erditik gorako gastua (%54,8); eta horren ondoren daude Eusko Jaurlaritza (%29), udalak (%10,2) eta azkenik administrazio zentrala (%6). Foru Aldundiaren gastua, 1. grafikoko datuek erakusten duten bezala, gizarte-zerbitzuak finantzatzen dituzten beste erakundeek bideratzen dutenaren batura baino altuagoa da.

Gastu publikoaren helburua

Gizarte-zerbitzuen baitan hartutako oinarrizko zerbitzu eta prestazioen arabera gastuari dagokionez (ikus 1. taula), nabarmentzen da egoitzetako arreta eta prestazio ekonomikoetan biltzen dela egindako gastu publiko osoaren %69a. Zerbitzu eta prestazio desberdinen artean nabarmentzen dira egoitza-zentroak (157 milioi euro), DBL (91,6 milioi euro) eta mendekotasunera bideratutako prestazio ekonomikoak (46,1 milioi euro). Hiru sail horietako gastua, praktikan, eginiko gastuaren %59a da.

Gipuzkoako gizarte-zerbitzuetako gastuaren banaketa biltzen da 2. taula horretan, 2013ko helburuaren eta finantzazioaren ardua duen erakundearen arabera. Bertan nabarmentzen denez, udalek bideratzen dute oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gastuaren %33a, ostatu-zerbitzu eta egoitzetako arretara %21, eta etxez etxeko laguntza-zerbitzura %11, soilik; bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak bideratzen du bere gastuaren %45a egoitzetako zerbitzuetara, eta ia %25a bideratzen du mendekotasunaren arretarako sistemaren prestazio ekonomikoetara; Eusko Jaurlaritzak bideratzen du %75,7a prestazio eta laguntza ekonomikoetara; eta azkenik, administrazio zentralak bideratzen du gastuaren zatirik handiena egoitzetako arreta (%55,1) eta prestazio ekonomikoetara (%23,5) autonomia eta mendekotasunaren arretarako esparruan.

1. taula. Gastu publikoa (milaka eurotan) gizarte-zerbitzuetan, oinarrizko zerbitzu eta prestazioen arabera. Gipuzkoa 2013

		Gastua	Banaketa bertikala (%)
Etxebizitzetako zerbitzuak	Etxez etxeko laguntzarako zerbitzua	20.159	4,0
	Telelaguntza	1.373	0,3
	Guztira	21.532	4,3
Eguneko arreta-zerbitzuak	Eguneko Zentroak	28.336	5,7
	L.Z.-E.Z.B.	19.792	4,0
	Erretirodunen Etxeak	2.185	0,4
	Guztira	50.313	10,1
Egoitzetako arreta	Egoitzetako zerbitzuak	157.162	31,5
Prestazio eta laguntza ekonomikoak	DBE/EPO	91.591	18,4
	GLL	6.781	1,4
	Mendekotasunetako prestazio ekonomikoak	46.060	9,2
	EGL-GOF-KGP	16.232	3,3
	Seme-alaba eta kontziliaziorako familientzako L.E.	12.266	2,5
	Bestelako laguntza ekonomiko batzuek	13.895	2,8
	Guztira	186.825	37,5
Talde tekniko eta oinarrizko gizarte-zerbitzuak	Talde teknikoa	14.054	2,8
	Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	18.732	3,8
	Guztira	32.786	6,6
Programak	Sustapena-prebentzioa	19.947	4,0
	Gizarteratzea	12.339	2,5
	Gizarteratzea eta lan txertaketa	2.938	0,6
	Abegia	2.190	0,4
	Adopzioa	109	0,0
	Familien eskuartzea	11.292	2,3
	Arreta psikologiko eta juridikoa	810	0,2
	Guztira	49.625	10,0
Guztira	498.243	100,0	

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuetako Gastu Publikoa 2013.

2. taula. Gipuzkoako gizarte-zerbitzuetako gastu publikoa (milaka eurotan), finantzatzen duen erakunde eta helburuaren arabera. 2013


	Udalak		Foru Aldundia		Eusko Jaurlaritza		Administrazio zentrala		Guztira	
	Euroak	%	Euroak	%	Euroak	%	Euroak	%	Euroak	%
Etxebizitzetako zerbitzuak	5.697	11,2	12.278	4,5	1.373	0,9	2.184	7,4	21.532	4,3
Eguneko arreta-zerbitzuak	2.603	5,1	28.970	10,6	14.701	10,2	4.039	13,6	50.313	10,1
Egoitzetako arreta	10.743	21,1	122.900	45,0	7.170	5,0	16.350	55,1	157.162	31,5
Prestazio eta laguntza ekonomikoak	5.135	10,1	65.343	23,9	109.391	75,7	6.957	23,5	186.825	37,5
Talde teknikoak	812	1,6	12.225	4,5	1.017	0,7	0	0,0	14.054	2,8
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	16.857	33,0	823	0,3	1.053	0,7	0	0,0	18.732	3,8
Programak	9.162	18,0	30.455	11,2	9.891	6,8	117	0,4	49.625	10,0
Guztira	51.008	100,0	272.993	100,0	144.595	100,0	29.647	100,0	498.243	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte Zerbitzuetako Gastu Publikoa 2013.

Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoa beste parametro ekonomiko batzuekin erlazionatuz gero, nabarmentzen da 2013an Gipuzkoako gizarte-zerbitzuetako gastu publikoak biltzen duela BPGaren % 2,3a eta Gipuzkoako Foru Aldundiak itunduta dituen zerga-bilketaren % 13,3a. EAEko beste lurralde Historikoen aldean, Gipuzkoa da gizarte-zerbitzuetan

gasturik urriena egiten duen lurraldea, dela BPGaren konparazioan, dela aldundien zerga-bilketaren konparazioan. Aurretik aipatu den bezala, apalagoa den gastu hori gertatzen da, gehienbat, Gipuzkoako lurraldean Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzaren estaldura baxuagoagatik, baina ez horrengegatik bakarrik.

2. grafikoa. Gizarte-zerbitzuei loturiko gastu publikoaren parametro ekonomiko desberdin batzuek, Lurralde Historikoen arabera. 2013 (%)



Iturriak: Eusko Jaurlaritza. EOB. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika; EUSTAT. Kontu Ekonomikoak; Eusko Jaurlaritza. Ogasun eta Finantza Saila. Itundutako zergen bidez Foru Aldundiek eginiko zerga-bilketa.


Gizarte-zerbitzuen muina

Buletin honetan bildutako datuetan kontuan hartzen dira gizarte-zerbitzuen arloan ohiko izan diren zerbitzu eta programak, eta bertan biltzen dira bai Gizarte Zerbitzuetako katalogoan ez dauden prestazioen inguruko gastuak bai Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzak edo enplegurako zentro bereziak. Halere, *Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Ekintzako Estatistikek* eskaintzen dituzte gizarte-zerbitzuen muinean dauden gastuen inguruko datuak, hau da, Gizarte Zerbitzuetako Legearen Gizarte Zerbitzuetako Katalogoan dauden zerbitzu eta zentroetara bideratzen diren gastuak. Oraingoz, 2012. urtekoak dira Gizarte Zerbitzuetako muina osatzen duten eta eskuragarri dauden datuak.

Datu horien arabera, Foru Aldundiak eginikoa zen 2012an gizarte-zerbitzuen muinari bideratutako gastuaren % 71,3a, udaletakoa zen % 10,9a eta Estatuak bideratutakoa zen % 11,1. Kopuru horiek desberdinak dira zentzu zabalago batean gizarte-zerbitzuak finantzatzera bideratutako gastu publikoaren inguruan 1. grafikoan ageri diren horien aldean. Alderik nabarmenenak ikusten dira Katalogoaren zerbitzu eta prestazioak soilik hartzen diren % 54,8 izatetik % 71,3ra igaro den Aldundiaren gastuan, eta Erkidegoko finantziarioa % 29 izatetik % 6,7 izatera gutxitu denean. Biztanle bakoitzeko eurotan neurtutako gastuaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiarena da kontribuziorik altuena (333,2 euro per capita), horren ondoren daude udalak (51,2 euro per capita) eta Eusko Jaurlaritza (31,2 euro per capita).


Lurraldearekiko ikuspegiari helduz gero, nabarmentzen dira alderdi garrantzitsu batzuk, baina ez soilik gastu publikoaren inguruan, baita ere gizarte-zerbitzuen finantzazio publikoaren muinarekiko. Araba da biztanleko eurorik gehien gastatzen duena, ia-ia 550 euro, Gipuzkoako 467 eta Bizkaiko 401 euroen aldean. Alde horren zergatia aurkitzen da Arabako Aldundiak eta udalek egiten duten gastuan; Bizkaian nabarmentzen da –beste lurraldeekiko– Aldundiak egiten duen gastu apala; eta Gipuzkoan egiten den udaletako biztanle bakoitzeko 51,2 euroko gastua, Arabako 94,7 euroko gastuaren aldean.

Muineko gizarte-zerbitzuen biztanleko gastu publikoa, finantzatzen duen erakundearen arabera. 2012 (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza. EOB. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika.

Muineko gizarte-zerbitzuen gastu publikoaren banaketaren ehunekoa, finantzatzen duen erakundearen arabera. 2012 (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza. EOB. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika.

Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoaren eboluzioa

Hazten joan da Gipuzkoako gizarte-zerbitzuetako gastua azkeneko hamarkadan, eta hazkuntza hori nabarmendu da 2007tik eta krisialdi ekonomikotik aurrerantzean. 2006ko gastu arrunta 277,2 milioi eurokoa zen, eta 2013. urteko gastu publikoa heldu zen 498,2 milioi euro izatera. 4. grafikoan ikus daitekeen bezala, 2006tik aurrera Gipuzkoan izandako gastu publikoaren ehuneko hazkundera %79,9koa izan da, 2002 eta 2006 urteen bitartean, berriz, %57koa izan zen. Hazkunde hau gainontzeko lurraldeengandik nabarmentzen da, eta denboraldi

berean EAEko gizarte-zerbitzuetako gastu publikoaren hazkundera ere gainditzen du (%66,6).


Urteotan gutxi aldatu da Gizarte Zerbitzuetako finantziazioan administrazio desberdinek eginiko esfortzu erlatiboa (aipatuenez, kontuan hartuz DBL, EBZ eta bestelako programa eta prestazioak). 5. grafikoan ikus daitekeenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aro horretan guztian finantzatu izan du gastu publikoaren %53 eta %57, eta udalek eta administrazio zentralak finantzatu izan dute %4 eta %10 artekoa. Erkidegoko ekarpena izan da urteotan gehien hazi dena maila erlatibo batean, eta igaro da 2002an %20 izatetik 2013ko %29 izatera.

3. grafikoa. Gizarte-zerbitzuetako gastu publiko arrunta (milioika eurotan) eta per capita gastuaren eboluzioa (eurotan). Gipuzkoa 2002-2013




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuetako Gastu Publikoa 2013.

4. grafikoa. Gizarte-zerbitzuetako gastuaren ehuneko hazkundera, Lurralde Historikoaren arabera. 2002-2013 (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuetako Gastu Publikoa 2013.

5. grafikoa. Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoko ehuneko banaketaren eboluzioa, finantzazioa egiten duen erakundearen arabera. Gipuzkoa 2002-2013 (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte Zerbitzuetako Gastu Publikoa 2013.

Gastuaren helburu den biztanleriari dagokionez, kolektibo desberdinen banaketak berean dirau 2002. urtetik, baina nabarmendu behar da hazkuntza erlatibo bat gertatu dela pobrezia edo gizarte-bazterketa pairatzen duen biztanlerian (% 22tik


% 27ra). Pertsona adinduei bideratutako zerbitzuek biltzen dute gastu publikoaren banaketaren ehunekorik altuena, eta horiekin batera pobrezia eta gizarte-bazterketa egoerak pairatzen dituzten pertsonen bideratutako zerbitzu eta prestazioek.

6. grafikoa. Gipuzkoako gizarte-zerbitzuetako gastu publikoaren ehuneko banaketaren eboluzioa. Gipuzkoa 2002-2013 (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte Zerbitzuetako Gastu Publikoa 2013.

7. grafikoa. Gipuzkoako parametro ekonomiko batzuen urtetik urterako hazkuntzaren eboluzioa. 2002-2013 (%)



Iturria: usko Jaurlaritza. EOB. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika; EUSTAT. Kontu Ekonomikoak; Eusko Jaurlaritza. Ogasun eta Finantza Saila. Itundutako zergen bidez Foru Aldundiek eginiko zerga-bilketa.

Halaber, garrantzitsua da nabarmentzea 2002 eta 2013 urteen arteko gizarte-zerbitzuetako gastu publikoa hazi egin dela, orokorrean, BPG eta zerga-bilketaren gainetik. Gizarte-zerbitzuetako gastuak urtetik urterako hazkuntza oso garrantzitsua izan du 2002 eta 2007 urteen artean, 7. grafikoan ikus daitekeen bezala (ia gehienez % 10etik gorako tasak izan dira, eta orokorrean, BPG eta zerga-bilketaren gainetik); krisialdi ekonomikoaren ondorioz, are gehiago hazi zen gizarte-zerbitzuetako gastua (% 18a 2008 eta 2009 urteen artean), BPG eta zerga-bilketek behea jotzen zuten bitartean. Halere, 2010. urtetik aurrerantzean, bai gizarte-zerbitzuetako gastua bai BPG eta zerga-bilketak egokitu egin dira, aldakuntza positibo eta negatibo oso urriak izanik. Garrantzitsua da nabarmentzea edonola ere, euro korranteetan kontuan hartuz, % 2,5 gutxitu egin zela gizarte-zerbitzuetako gastua 2012 eta 2013. urteen artean, lehenengo aldiz aztertutako urte horien aldean.

Gizarte-zerbitzuen arloko gastu pribatuaren garrantzia


Aurreko ataletan gizarte-zerbitzuetara bideratutako gastu publikoa biltzen den arren –hau da, gizarte-zerbitzuen iraunkortasunerako administrazio publikoek eginiko gastua–, ondoren aurkezten diren datu hauen jatorria da Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Saileko Estatistika Organo Bereziak lantzen duen *Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Ekintzako Estatistika*. Bertan eskaintzen da zabalagoa den ikuspegi bat, izan ere, erreferentzia gisara hartzen da gizarte-zerbitzuetako gastu osoa, eta bertan kontuan hartzen dira arlo publikoa eta arlo pribatua. Azkeneko kategoria horretan kontuan hartzen dira Enplegu Zentro Bereziak produktuak saltzetik lortzen duten finantzazioa, erabiltzaile diren pertsona eta berauen familien koordainketa, edota programa eta zerbitzu zehatz batzuek finantzatzeko irabazi-asmorik gabeko erakundeek bideratzen dituzten ekarpenak.

Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Ekintzako Estatistika-ren arabera, Gipuzkoako gizarte-zerbitzuetako 2013. urteko gastu osoa heldu da 749,3 milioi euro izatera, eta horietatik % 67,4 bideratu dira finantzazio publikotik.

Oinarrizko bost ideia

- 2013ko gizarte-zerbitzuetako gastu publikoa hazi zen ia 500 milioi izatera Gipuzkoan, hau da, biztanleko 700 euro baino gehiago, eta Gipuzkoako Foru Aldundia izan zen finantzazioan ekarpen handiena egindako erakundea (% 54,8).
- Gizarte-zerbitzuetako gastu publikoak helburutzat hartutakoaren arabera, nabarmentzen da egoitzetako arreta eta prestazio ekonomikoetara bideratutako gastuaren % 69a. Diru-sarrerak bermatzeko Laguntza heldu zen 91,6 milioi euro izatera, hau da, gastu publiko osoaren % 18,4a.
- 2002 eta 2013 urteen artean hazi egin da gizarte-zerbitzuetara bideratutako gastu publikoa, eta hazkuntza hori nabarmendu da 2007. urtean hasitako krisialditik. 2006an ohiko gastu publiko hori 277 milioi eurokoa izan zen, eta 2013. urteko gastua heldu zen ia-ia 500 milioi euro izatera.
- Gizarte-zerbitzuetara bideratutako gastu osoaren % 73 ohiko gastuak dira, familiei bideratutako gastuak dira % 25 eta kapitalaren gastuak dira % 2. Gizarte-zerbitzuetako gastu osoaren % 32,6 finantzazio pribatutik bideratzen da.
- Hiru lurraldeak batera kontuan hartuta baino baxuagoa izan da Gipuzkoan 2002 eta 2013 urteen artean bideratu den gastu osotik gastu publikoaren ehuneko hori, halere, 2007-2012 urteen artean administrazio publikoek finantzatuta gehien hazi den lurraldea izan da.


8. grafikoa. Gizarte-zerbitzuetako osoko gastuaren ehunekoaren banaketa, finantzazio-iturriaren arabera. Gipuzkoa 2013 (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza. EOB. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika 2013.

Bestalde, gastu motaren arabera gizarte-zerbitzuetako gastu publiko eta pribatua osoki aztertuz gero (desberdinez kapitalaren gastua, familiei bideratutako prestazio ekonomiko edo transferentziak eta ohiko gastua, orokorrean zerbitzu tekniko edota arreta zuzena finantzatuz), nabarmentzen da transferentzia ekonomikoetan garrantzi erlatiborik gutxiena duen Lurralde Historikoa Gipuzkoa dela –bertan hartzen dira kontuan prestazioak eta izaera ekonomikoa duten laguntzak– guztirako gastuarekiko (% 25), Bizkaia (% 35) eta Arabaren aldean (% 31). Aitzitik, Gipuzkoa da ohiko gastuan garrantzirik gehien duen lurraldea beste lurraldeen aldean eta EAEko mediatik gora.


9. grafikoa. Gizarte-zerbitzuetako guztirako gastuaren ehuneko banaketa gastu mota eta Lurralde Historikoen arabera. 2013 (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzak. EOB. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika 2013.

Lurralde Historikoen arabera aldeak nabarmendu daitezke 10. grafikoa, izan ere, bertan ikusten da 2002 eta 2013 urteen artean izandako gizarte-zerbitzuen guztirako gastuarekiko gastu publikoaren eboluzioa. Datu horien arabera, Gipuzkoa da guztirako gastuarekiko garrantzia erlatibo gutxienean duen lurraldea. Hori gertatzen da, hein handi batean, ondorengo bi faktore hauengatik: lurraldean koordainketara lotu gabe dauden prestazio ekonomikoek duten garrantzia apalagoarengatik eta zati handi batean finantzaketa pribatua duten Enplegu Bereziko Zentroyen garrantzia handiagoarengatik (bezeroei egiten dizkieten salmenten bidezko finantzazioa). Edonola ere, nabarmentzekoa da 2007 eta 2012 urteen artean Gipuzkoa izan dela administrazio publikoek finantzatuta gastu osoaren ehunekoan gehien hazi den lurraldea, eta bost urte horietan igaro da % 65,2 izatetik % 71,3 izatera, modu honetan Bizkaiko (% 73,8) eta EAE osoki hartutako zenbatekora hurbilduz (% 73,9). Halere, lehengoratu egin da joera hori 2013. urtean, izan ere, orain dela 5 urteko gastu publikoaren garrantzia erlatiboa izan du urte horretan (% 67,4). Murrizketa hori gertatu da, hein batean, Eusko Jaurlaritzak eta Administrazio zentralak eginiko gastuaren gutxitze batengatik, baina baita ere gastu pribatua hazi egin delako.

10. grafikoa. Gizarte-zerbitzuetan gastu osoarekiko gastu publikoak izandako ehunekoaren eboluzioa, Lurralde Historikoen arabera. 2002-2013 (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzak. EOB. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika 2013.